

# Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

12/4/20 | 362

🌀 Ibon Artola eta Manex Izagirre

🌀 Normalizazioa: Aurten noraino?

🌀 Eskualdeko albisteak

🌀 Zintzilik: Euskal Herrian Ihesi

🌀 Mikel Laskurain

Buruntzunzingo meategiak,  
Txindoki magalean  
kokaturiko ondarea

🌀 Asier Hilarioekin solasean

**FUNERARIA**  
**VASCONGADA**  
EHORZKETAK

 **902 402 900**

[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

**TOLOSA**  
Kondeko Aldapa, 5  
943 - 67 00 40

**VILLABONA**  
Larrea Polg., 34 - 1  
943 - 69 48 73



**KOLORE INPRIMATEGIA** 

EZIN ARDURATU AHAL IZATEAGATIK, INPRENTA DIGITALA  
ESKUALDATZEN DA GOIERRIN

636 628 439  
ELOSEGI 3  
20210 LAZKAO

2012an Galtzaundiko bazkideek %50 merkeago egin ahalko dute Berriako harpidetza. Informazio gehiago eskuratzeko nahiz Berriak egindako eskaintza eskuratzeko, Galtzaundira jo beharko duzu: 943 655 004 / koordinatzailea@galtzaundi.com / Nafarroa etorbidea 6, Tolosa

**Kontsumitu euskarazko prentsa! Guk, guretzako egina!**

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

**NUTRIZIO AHOLKULARITZA**

**DIETA PERTSONALIZATUAK**  
**OBESITATEA**  
**NUTRIZIO BERREZIKETA**  
**ARIKETA FISIKOA**  
**HELDUAK ETA HAURRAK**

**KONDEKO ALDAPA.**  
5 B - 2ª ESKUBIA  
20400 TOLOSA

**ALDEZ AURREKO HITZORDUA**  
679 934 888

**AMAIA ETXETXIPIA**  
"BIOLOGIAN" lizentziatua eta "GIZA ELIKADURA ETA DIETETIKAN" Diplomaturak

**Lagun Aro-ren partidarako, VIP gunean, 2 sarrera bikoitza zozketatzen dira.**

**SUPER EKO** *Oinezkoen eremua Erosketak etxera eramateko zerbitzua*

**SUPERMERKATUA**

Zumalakarregi, 4  
943 65 09 01  
Tolosa

**CITROËN C4 PICASSO**  
VTi 120 TONIC  
14.500€\*

**CITROËN C3**  
TONIC 8.900€\*

**CITROËN C4 VTI 95**  
TONIC 12.500€\*

**OH!** **HILABETE HONETAN ESTRAK SERIEAN DATOZ**

Oh! Ah! Eta bata eh? ere Citroën berrak esku artean du zurekin atxiki zaitzuten orainak dira. Teknologia gaurtik ere berrakio erabiltzeki gabe izango dugu. Citroën C3arekin nahiz duzun eren hila jango dugu, Citroën C4 berrizalearekin edo Citroën C4 Picassoarekin. Berrizalearekin erabiltzen dugu espazio gaurtik, gaurtik aurrera ekipamendu berrakien gozatzeko aukera puztuak izango dugu. Zergatik berrak ere izan?

KONTSUMO HESIDA (l/km) / CO2 HERRAIOA (g/km): CITROËN C3: 3.46/7/155  
CITROËN C4: 4.2-6.4/109-148 CITROËN C4 PICASSO: 4.8-6.7/125-175

\*Guztira: Citroën C4 Picasso VTI 120 Tonic, Citroën C3 1.1 Tonic, Citroën C4 VTI 95 Tonic (argi, garaiak, beharrezkoak eta berrakioak). Berrakio partzialerako lehenengoak. 3 hilabetez bakar erabiltzeki diruzko erabiltzeki. 8.000€-ko laguntza erabiltzeki. Berrakioak eta berrakioak erabiltzeki. Citroën C4 eta C4 Picassoentzako 36 hilabetezko erabiltzeki eta Citroën C3entzako 48 hilabetezko erabiltzeki. Hilabete berrakioak berrakioak. Berrakioak berrakioak. Citroën C4 Picassoentzako, C3entzako eta C4entzako. www.citroen.es web orrian lortzeki berrakioak.

**CITROËN**  
CREATIVE TECHNOLOGIE

**IROVI S.A. CITROËN KONTZESIONARIO OFIZIALA. INDUSTRIAGUNEA Z/G. TEL: 943 651 842 ANOETA/TOLOSA**

**nonzer**

**galtzaundi**  
euskarara taldea

Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.  
Helbidea: Nafarroa etorbidea, 6-behea.  
20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
943 655 004  
Faxa: 943 654 983  
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com  
Webgunea: www.galtzaundi.com  
Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.  
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegiarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague  
Banatzaileak: Olatz Garmendia, Juankar Arregi  
Zuzentzailea: Nora Olano  
Maketazioa: Zigor Agirrezabala.  
Diseinua: Zigor Agirrezabala  
GOKUK

Azala: Galtzaundi  
Inprimategia: Antza.  
Tirada: 5.000 ale  
Lege gordailua: SS-906/91  
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.








**Erreportaia: Buruntzunzingo meategiak**

Aralarko Parke Naturalaz gozatzeko edozein garaí ona dela zalantzarik ez. Udaberriaren etorrerarekin batera, Buruntzunzingo meategien inguruaz disfrutatzen da. Meategien historia, inguruaz, egindako eta egin beharreko lanaz informazio gehiago eskuratzeko asmoz, Iñaki Amundarainekin eta Jexux Inurritarekin elkartu da Galtzaundi, Amezketako egungo eta aurreko legealdiko alkateekin, alegia.

8-11. orrialdeak

Asier Hilario (Tolosa 1977), gurasoekin Hernialden bizi ondoren, gaur egun Iruran bizi den EHUko geologia doktore tolosarra da. Horrenbeste maite dituen Pirinioen sorrera ikertu zuen lau urtez Benasquen, bere tesia osatzeko. Ondoren, beste beka batekin Suitzan aritu zen urtebetez, Europako ikerketa zentro nagusienetakoa den Zurichecko ETHn.

Asier Hilario 14-16. orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Ibon Artola eta Manex Izagirre	4-5
	Normalizazioa: Aurten noraino?	6-7
	Eskualdeko albisteak	12-13
	Zintzilik: Euskal Herrian Ihesi	17
	Kultura: Mikel Laskurain	18-19

**TOLOSAKO UDALA**

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jasotzen du.

KULTURA SAILA  
Hizkuntz Politikarako Saiburuordetza  
diruz lagundutako argitalpena

## Grezia: zer falta da kapitalismoarekin amaitzeko?



Ibon Artola  
Euskal Herria Sozialista-ko kidea

4 Azken bi urteetan, Europako prozesu politiko, ekonomiko eta sozialen epizentro bihurtu da Grezia. Gaizki deitutako erreskate planek eta hauek ekarritako murrizketa sozial basatiek aurrekaririk gabeko hondamendira bultzatu dute herrialdea. Bi urtetan bakarrik langile publikoen soldatak %50 jaitsi dira, eta familien diru sarrerak %30. Milioi bat pertsona baino gehiago daude langabezian (gazteriaren %50 dago lanik gabe) eta langabetuen herenak soilik jasotzen du langabezia-laguntza. Etxebizitarik ez dutenen kopurua handitu egin da: Atenasen bakarrik %25 igo da, eta 20.000 pertsona bizi dira kalean. Honekin batera datu ofizialen arabera, herritarren herena, 860.000 familia pobrezian bizi dira.

Greziako egoera larriaren adierazgarri da umeak abandonatzea, haur-desnutrizioa eta suizidioak Hirugarren Mundua deitutako herrialdeen mailara iritsi direla. BBCK apaiz ortodoxo

baten hitzak jaso zituen: "azken urtean ehunka guraso etorri zaizkigu beren umeak uztera... beren seme-alabentzat dirurik, etxebizitarik eta elikagairik ez dutela esaten digute".

Baina basakeria hau guztia gertatzen ari den bitartean, beren burua abertzaletzat aurkezten duten kapitalista greziarrek murrizketa sozialak defendatzen dituzte, eta zergak ez ordaintzeko beren kapitalak Suitzako eta Alemaniako bankuetara eramaten dituzte zigorgabetasun osoarekin (37.000 milioi euro azken urtean). Krisia hasi zenetik 560.000 milioi euro atera dituzte herrialdetik, zifra honek zor greziarra bikoizten du. Honen ondorioz, aurrera eraman diren murrizketek gain, zorra BPGren %113tik %160ra pasatu da azken hiru urteetan.

Egoera honen aurrean, ehunka mila langile, gazte, langabetu eta erdi mailako sektore pobretuek antolatutako borroka mugimendua goitik behera astindu du gizartea. Mugimendu honek herrialdea geratzeko eta burgesiaren instituzio politikoak kolokan jartzeko indarra izan du behin eta berriro. Honek erakusten du badaudela baldintzak iraultza sozialistarako: klase kapitalista ez da lehen bezala gobernatzeko gai. Langile klasea, gizarteko sektore zapalduen buru jarrita, borrokaren abangoardian jarri da, eta bere mobilizazio eta erresistentzia gaitasun ikaragarria erakutsi du. Kapitalismoa irtenbiderik gabeko kalea denaren, gizar-

teak benetako oinarri demokratikoen gainean langileek kudeatua izan behar duenaren eta bankariak, enpresariak eta kapital finantzarioa hondamendi honen arduradunak direnaren ideiek gero eta babes handiagoa dute. Erdi mailako sektoreek ere, beste batzuetan erreakzioaren oinarri sozial izan direnek, ezkerreantze egin eta langile klasearen borroketan parte hartu dute. Iraultza-aren aldekoak dira korrelazio indarrak.

Greziaren oraindik kapitalismoak jarraitzearen arrazoia ez da langile mugimenduaren borroka edo kontzientzia falta, ez da burgesiaren eta bere estatu aparatuen indar gaindiezina (kasu askotan ikusi da polizia-aren errepresioak mugimendua indartu besterik ez duela egin). Oinarritzko auzia beste bat da: ezkerrek, bereziki KKEk (Greziako Alderdi Komunista), alternatiba sozialista defendatzea eta langile klasearen abangoardia antolatzea biztanleriaren gehiengoa irabazteko eta horrela kapitalismoa garaitzeko.

Hainbat eta hainbat greba orokor, manifestazio historiko eta enpresa okupazioen ondoren langile klaseak mahai gainean jarri du boterearen auzia. Bankuak eta monopolio handiak desjabetuta eta hauek langileen kontrolpean jarrita bakarrik izango da posible gaur egun herri greziarrek jasaten duen hondamendiarekin amaitzea. Beraz, inoiz baino beharrezkoagoa da alternatiba sozialista defendatzea. ©


## Historia gure amonek idatzi balute...!

Akordatzeko, eta guk, gazteok, denbora gutxiagok agian entzuteko. Horrelako istorioak entzutean auzoko amonaz oroitzen naiz, edo merkatuko barazki sal-tzaileaz, edota kalean eskean egoten den amonaxoaz. Denek izango dute ziur zer kontatua. Baina historia isila da herri honetako emakumeena. Gerretako trintxeretan agian parte hartu ez zuten emakumeena, baina gerra zuzenean pairatu zutenen historia. Etxetik kanpo lan egiten ez zutenena baina familia aurrera ateratzeko gogor lan egin zutenena, une gogorrenetan ere.

Egunerokoan gure amonek egindakoa, bizitakoa, aita, aitona eta semeen itzalean geratu ohi da sarri. Gizonezkoek idatzitako historian leku urria dute emakumeek. Historia txikia, xumea agian, baina ez garrantzia gutxiagokoa. Gure iraganaren zatiak, eta beraz historia globalaren parte behar luketenak.

Etxeko sutondoan idatzitako historia da gure amonena, bazkalostean, errautsez idatzia. Baina leihoa zabaltzearekin bat haizeak daramatza errautsak. Inoiz paperera pasako baltz entziklopedia osoak beteko lituzke. Bitartean, gure oroimenean geratuko dira gure amonen istorioak, baina ondorengo amonek idatziko dute beren historia, hitzak haizeak eraman ez ditzan.

©



Manex Izagirre  
Gaztea

5 Utzi gaituzu, amona. Itzali zaizu sugarra. Eta guk, zure hutsunean, atzera begiratzen dugu. Zure oroimenera, zure historiara.

# Aurten noraino?

Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina abian

“Aurten noraino?” galdera-leloaz eskualdeko hainbat eragilek errenta aitortpena euskaraz egitera bultzatzeko kanpaina martxan jarri dute. Izan ere, urtetik urtera ogasunarekin tramitea euskaraz burutzeko hautua Tolosaldeko herritar gehiagok egiten du. Goranzko joera mantendu dadin eman beharreko pausoak zehazten dira jarraian.

## Erredakzioa

Errenta aitortpena euskaraz egitera bultzatzeko kanpainak aurtengoan laugarren urtea beteko du. Lau urte hauetan zehar, datuak aztertuz gero, euskarazko erabiltzaileak ugartu direla eta aurrerantzean ere ugartuko direla antzeman

daiteke. Izan ere, 2008an 3.213 lagunek errenta aitortpena euskaraz burutu bazuten ere, kopurua iaz 4.546ra igo zen.

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremana euskaraz mantentzea bultzatzen duten eragileak eta ondorioz, aipaturiko kanpainaren erantzule direnak ondoren zehaztutakoak dira, guztiak Tolosaldeko eragileak izanik. Alde batetik, euskalgintzako bi talde, Kontseilua eta Galtzaundi Euskara Taldea bera. Eta bestetik, Udallerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) 13 udal: Aduna, Anoeta, Alegia, Altzo, Amezketta, Baliarrain, Gaztelu, Ikaztegieta, Irura, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain eta Oresa. Eta azkenik, eskualdeko beste lau udal: Ibarako Udala, Tolosako Udala, Villabonako Udala eta Zizurkilgo Udala.

**Kanpainaren nondik norakoak**  
Eskualdean kanpaina zabal-

du eta herritarrengan eragiteko asmoz hainbat euskarri informatibo erabili dira. Batetik, egitasmoan parte harturiko herri guztietan zehar “Aurten noraino?” lemapeko kartelak zabaldu dira –guztira 370 bat.

Lemari jarraika eta sortutako “moskeo” kanpainari erantzun eman asmoz, informazio esku-orria banatu da. Ekimenean parte hartutako udalerrri guztiek –Tolosa salbu- esku-orria etxez etxe jaso dute. Guztira, 11.000tik gora informazio orri zabalduko dituzte eragile ezberdinek Tolosaldean barrena. Galtzaundi Euskara Taldeko bazkideek euren Galtzaundi Aldizkarian txertaturik jasoko dute. Tolosan, hala ere, iragarpen kanpainak bestelako euskarriak ere aurreikusit ditu: autobusetan publizitatea txertatzea kasu.

Aipatu esku-orrietan herritarri era zuzen eta argi batean errenta aitortpena euskaraz

nola egin argitzen zaio. Egunotan, etxeetara iritsiko diren autolikidazio proposamenak berretsi eta deklarazioaren behin betiko bertsioa euskaraz izateko hiru bide daude. Hiru-eretan gainera, lehen urratsetik zein hizkuntzatan egin nahi den modu errazean aukeratu daiteke.

Esaterako, Foru Aldundiak berak autolikidazio proposamenak etxera zuzenean bidaltzen dituen; ados egonez gero, berresteko euskaraz jaso nahi dela adierazi beharra dago. 902 100 040 telefono zenbakira deituta berretsi daiteke, orduan hizkuntza aukeratzeko aukera izango du zergadunak.

Bigarren aukera internetek eskaintzen du: [www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net) webgunean partikularrek autolikidazio proposamena onartzeko atalean sartu edo sinadura elektronikoa edo pasahitz operatiboa izanik Gipuzkoataria portalean egin beharra dago, eta ondoren, hizkuntza aukeratu beharra dago.

Azkenik, errenta aitortpena bestelako bideak erabiliz eginez egiten dutenek –mekanizatua, gestoria bidez, Foru Aldundiaren egoitzara joan-


da...- euskaraz egin nahi dutela adierazteko aukera dute.

## Gaztelaniaz bezain erraza

Tramitea euskaraz egitea beraz, ez du aparteko zailtasunik aurkezten. Kanpainaren bultzatzaileek adierazi bezala: “gaztelaniaz egitea bezain erraza da euskaraz egitea”. Azken urtean, 700 bat zergadunek horrela berretsi zuten, errenta aitortpena lehenengoz euskaraz eginez. Eta azken bi urteak kontutan hartuz gero, 1.333 pertsona gehiagok egin du errenta aitortpena euskaraz.

## GFAk euskaldunen errolda

Erakunde publikoekin herritarrek harremanak euskaraz izan ditzaten Gipuzkoako Foru

Aldundiak egitasmo berri bat martxan jarri du. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundia erakundearekiko harremana euskara hutsuz egin nahi duten herritarren errolda osatzen ari da. Aipatu zerrenda bete ahal izateko, errenta aitortpenaren kanpainaz baliatuko da GFA. Honela, erakunde publikoak euskaldunek dituzten hizkuntz eskubideak betetzea bilatzen du. Herritarrengan eragitearekin batera, egitasmoak beraz, zergadunengan eragina izan eta errenta aitortpen gehiago euskaraz egingo direla aurreikusten da. 

## Datak

- Errenta autolikidazio proposamenak apirilaren 11tik maiatzaren 4ra bitartean onartu ahal izango dira.
- Gainerako errenta modalitateetan (mekanizatua, Internet eta papera) eta ondarean, epea apirilaren 17an hasi eta ekainaren 25ean amaituko da.
- Errenta aitortpen mekanizaturako hitzorduak apirilaren 16tik ekainaren 8ra bitartean eskatu ahal izango dira. Autolikidazio proposamena onartu nahi ez dutenek apirilaren 20ra arte itxaron beharko dute hitzordua eskatzeko.





Buruntzunzingo meategiak

# Txindoki magalean kokaturiko ondarea

Aralarko Parke Naturalaz gozatzeko edozein garai ona dela zalantzarik ez. Udaberriaren etorrerarekin batera, Buruntzunzingo meategien inguruaz disfrutatzen da. Meategien historiari, inguruaz, egindako eta egin beharreko lanez informazio gehiago eskuratze asmoz, Iñaki Amundarainekin eta Jexux Iñurritarekin elkartu da Galtzaundi, Amezketako egungo eta aurreko legealdiko alkateekin, alegia.

Naiara Roldán de Aránguiz

Aralarko Parke Naturalak 11.000 bat hektarea ditu, tokiko mendi enblematikoa Txindoki dela ezin esan gabe geratu, baina oraingoan Gipuzkoako mendi garrantzitsuenetarikoa den ekialdeko magalean geratuko gara, Buruntzunzingo meategietan, hain zuzen ere.

Zonaldeaz hitz egiteko izen ugari erabiltzen dira: Buruntzunzingo meategiak, Arritzagako meategia eta Olaberria. Izenak bere logika ere baduela argitzen du Jexux Iñurritak eta Iñaki Amundarainek: "Olaberria deitzen zitzaien eta normala bazen, bertan labeak eta mineralak ateratzen zituzten tokiak zeuden eta".

Duela gutxi arte, Amezketatik Igaratza bidean, Arritzagako sakanan, kokaturiko meategiak XVIII. mendean ustiatzen hasi eta 1950ean itxi zirela uste zen. Egun, ordea, "historia hedatzen ari da", dio Iñurritak. "Orain dela 3.500 urteko, Brontze Aroko aztarnak ateratu dira. Erromatar garaiko teknikak ibili direla ikusi da, ematen du 3.000 urtez lanean aritu direla meategi hauetan". Izan ere, Felix Ugarte Elkarteak aztertu bezala, eta Karbono 14 datazioak zehaztu moduan, aurkitutako k.a. 2.800 eta 800 urteetan kokatzen dira.

Ikerketa lan hauek oraindik orain indarrean segitzen dute, diru-laguntzak eskasak badira ere. Momentuz, Buruntzunzingo inguruan XX. mendeko aztarnak

txukundurik aurkituko dituzte bisitariak, panel informatiboak eta aipatu garaiko tresneria jasota. Mendian, ia 1.000 metro tara, meataritza jardueraren testigatza zuzena ikusiko du mendizaleak. Izan ere, besteak beste goiko zama-lekua, kable sistemaren euskarriak, beheko zama-lekua, polea sistema, mea garbilekua, bagonetentzako lokailua kablean eta kable sistemaren euskarriak ikusgai daude. Guztiak, antzemateko baldintza onetan, gainera.

Aztarnen kalitateaz mintzo da Jexux Iñurritak: "Berezitasuna duena, mendian egotea da, goran daudenez oraindik aztarnak oso ondo mantentzen dira, ez dira galdu. Herritik gertuago



**Aretxe**  
LORATEGIA CB

Etxebarru zein kalerako lorak.  
Lorategi lanabesak.  
Lora legor eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -  
Tel: 943 673 118 Tolosa

euskararen semaforoa  
euskararen semaforoa  
blogspot.com



 matilda

zure moda osagailu denda

Korreo Kalea, 3  
Tolosa



egongo balira, harriak, paretak galduta egongo lirakeke". Iñaki Amudarainek, Arritzaga inguruan, lurrean, egindako lanaren seinalea ere badagoela adierazten du, "mineral mordoa" baitago, labetik atera eta balio ez zuena, alegia.



Azarnei dagokionez, XX. mendekoekin egin bezala, XVIII. garaikoak ere jaso, txukundu, sailkatu eta mendian ikusgai jartzea, balioan jartzea, zen asmoa. Krisi ekonomikoa medio, egiteke geratu den proiektua da. Hala ere, Iñurritak bestelako ekimenak ere goraiatu nahi ditu: "aztarna pilo bat estudiatzeko dago oraindik, askotan diruaren arabera egiten da baina Felix Ugarte elkartek borondatez, afizioz lan

egiten du, ez du ezer kobratzen. Trasteak hartu, mendira etorri eta aztertu egiten dute. Badago oraindik honela funtzionatzen duen jendea". Maiatzaren 5ean, berriro ere elkarte honekin batera mendira igoko dira Iñurritak aurreratu digunez, mina-zuloak

non zeuden zehaztera, izan ere, gaur egun gehienak tapatuta daude. "Oraindik lana bada, go, diru gutxi baina boluntario batzuk badaude eta bitartean lanean jarraituko dute", dio Iñurritak.

#### Garai bateko lana eta bizimodua

Buruntzunzingo garairik oparoenatarikoa 1740-1820 bitartekoa izan zen, orduan 180

meatzarik lan egiten zuten goizez eta gauez, 12 orduz txanda bakoitzean. Kalkopirita zen mina zuloetatik ateratzen zena, ondoren kobrea lortzen zen; Amezketa jaitsi eta Pasaia, Bilbora garraiatu eta saldu egiten zen. Material horrekin armak, ontziak, kanpaiak egiten ziren. Bedaioko elizako kanpaiak ere, Buruntzuzinen omen du jatorria.

Langileen artean, gerora Amezketa herriaren enbaxadore izandako Fernando de Bengoechea *Pernando Amezketarra* bertsolari ospetsua aritu izan zen. Meategia itxi aurretik lanean geratzen azkenetarikoa izan zen *Pernando*. Honek gerora jarri zitzaion alferraren fama deuseztatu egiten du. Izan ere, Jexux Iñurritak aipatu bezala "azkenetarikoa geratzeko aukeratua izan bazen, txarra ez zen seinale".

Langileak, esan bezala, mina zuloan sartu eta 12 orduz bertan jarduten ziren; minerala hartu eta kanpo aldera garraiatu behar izaten zuten. Arazorik handiena, Iñurritak kontatu bezala, urarekin izaten zuten: "Mina zuloetan ura sartu egiten zen eta ponpatzeko sistemarik ez zegoenez, ura baldeekin atera behar izaten zuten".

Jatekoari dakionez, baba baino ez zuten ezagutzen bertako meatzariek; baba goizean, eguerdian eta gauean, ogi puska batekin baino ez. Meategi inguruan herrixka oso bat sortu zela ere gogoratu beharra dago. Familia osoak bizi ziren mendian, umeak ume zirela lanean hasten ziren. Hala ere, lanaz gain bestelakoak ere izaten ziren: eliza, pilotalekua eta taberna ere baziren bertan. Lana egiteaz gain, Iñurritak eta Amudarainek gogora ekarri bezala, "ardoaren eraginez festa, *jaleak*, jolasak eta apustuak ere izaten ziren".

Langileak bertakoak zein

kanpotarrak izaten ziren. Amezketarrez gain, azkeneko urtetan -1880 eta 1960 bitartean- galegoak izan ziren gehien bat. Nafarroako jende asko ere gerturatu zen lan bila Aralarko paraje hauetara, Pardelus delakotik Igaratza aldera dagoen nafarrentzako bidea testigu. Bestetik, hasierako urtetan minerala kobetatik ateratzeaz gain bertako labee-tan lantzen bazen ere, azken urteetan minerala atera, garbitu eta saldu egiten zitzairen labeak zituzten toki ezberdinei.

Mineralak garraiatu ahal izateko tresneria guztia prestatu zuten Txindokiko magalean, mina zuloetan sartuta zeuden karrilak, karrilen bagonetak, presiozko airearekin zulatze-ko mailuak eta Amezketaraino heltzeko kable eta bagonetak ere. Amezketa bertan gainera, Iñurritak kontatu bezala, laborategi bat zegoen: "kristalezko ontziak eta labe txikiak zeuden bertan, esperimentuak egin eta materiala nolakoa zen aztertu egiten zen. Honetaz gain, materiala garbitzeko "labaderoa" deiturikoa ere bazegoen".

Ikus daitekeen bezala, meategiek beharrezko azpiegitura guztia prest zuten. Prospekzio lanak burutu ziren, materialaren purutasuna eta kokalekua ziurtatu asmoz. Garraio lanek kostu handia suposatzen zuten eta gauzak honela, mendiaren beste aldetik, Gaintatik, 2 kilometroko zuloa egitea erabaki zuten, irisgarriagoa izan zedin. Hala ere, mineralaren prezioa unetik unera, eskaeraren arabera, aldatu zenez, eta garai horretan Txilen mineral ugari eta oso eskuragarri azaldu zenez, prezioak erabat behera egin zuten. Negozioa ez omen zen errentagarriegia suertatu eta azkenean meategien itxiera etorri zen.

#### Amezketarrentzat ondare eta ohore

Iñaki Amudarain eta Jexux Iñurrita bat datoz amezketarrentzat Buruntzunzingo meategiek izan zuten garrantzia aitortzerakoan. Minak indarrean zeuden momentuan herriari aberastasuna baino ez zioten ekarri, sortutako lan eskaintzagatik eta baita euren inguruan indartutako jarduera ekonomikoagatik. Orduko langileek kontatu bezala, jan eta bestelako produktuen zakuka ugari garraiatzen zituzten mandoeekin eta astoeekin, Amezketatik mendi aldera. Soldatari dagokionez ere, Iñurritak zehaztu

bezala, orduko paper fabrian baino askoz ere gehiago irabazten zen. Lana hobeto ordainduta zegoen baina gogorragoa ere bazen.

Bere garaian herriari lana eta aberastasuna ekarri ziotenez "ondare bat dira, arro egoteko modu bat", diote alkate biek. Izan ere, oraindik orain Amezketa bada jendea minetako azken fasean lan egindakoa eta istorioak eta bizipenak gertukoak dira. "Gertuko historiarengan interes gehiago izaten da", laburbiltzen du Jexux Iñurritak, minetako historiaren berreskurapen lanetan

buru belarri aritutakoa. Iñurritaren aurrekariek minetako historiarekin zerikusi zuzena dute eta: aitona -30 urtez- eta osaba -40 urtez- minetako langile izan ziren. Ume zenetik minen inguruko gertaerak eguneroko kontu bilakatu ziren beste amezketar asko eta askorentzat bezala.

Bisitariak ordea, parajeaz, mendiaz eta historiaren gozatzeko modu ezin hobea du Buruntzunzingo meategietara bisitaldia eginez. Urteko edozein garai egokia izanda ere, bestelako ekitaldiez probesturik ondorengo agenda proposatzen zaio mendizaleari: ☺



**Maiatzak 1, asteartea. Aralarko larreen irekiera** Larraitz, Zamao atsedenekua (Abaltzisketa). Urtero legez, maiatzaren lehenengoarekin batera, Aralarko larreak irekitzeko festa ospatuko da. 140 bat ganaduzaleek euren ardi, behi eta behorrak mendira igotzeko baimena izango dute. Animaliak udazkena arte Aralarko larreetan ibiliko dira, artzain asko eta asko mendiko txaboletan direla.

#### Maiatzak 27, igandea. XIV orduko martxa

2012.a urte olinpikoa izanik, ohiturari jarraiki Aralarko Adiskideei aurten XIV orduko martxaren antolamendua dagokie. Maiatzaren 27an, 3.400 parte hartzaileek 68 kilometro zeharkatuko dituzte. Tolosatik abiatu eta Tolosan amaitzen den proba honek Aralarko paraje ugari zeharkatuko ditu, kirol-festa eta erronka eguna bilakatuz.

#### Ekainak 3, igandea. Aralarko artzainei bisita gidatua

Artzain txaboletan dauden artzainen bizimodua gertutik ezagutzeko aukera. Egun erdiko irteera izango da, doakoa. 10.00etan Larraitzetik abiatu eta lau orduko ibilaldia egin ondoren artzainekin elkartu eta euren egunerokotasuna gertutik ezagutzeko aukera izango dute parte hartzaileek. Bizibiziki enpresaren ekimena. Izena emateko: [www.txindokikoitzala.com](http://www.txindokikoitzala.com) edo 628 947 253 telefono zenbakia.

#### Uztailak 8, igandea. Amezketa minetara bisita gidatua

Larraitzen kokatutako Txindokiko Itzala kudeatzen duen Bizibiziki enpresaren ekimena. Doaneko ekintza izango da, egun erdiko irteera. 10.00etan Amezketa elizan elkartu eta mendi-irteera bisitaldi gidatuari ekingo zaio. Gidari lanetan Jexux Iñurrita arituko da. Izena emateko: [www.txindokikoitzala.com](http://www.txindokikoitzala.com) edo 628 947 253 telefono zenbakia.



## Xirimiri

Txokolategia  
Xabier Izagirre

### Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223  
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

## ELUSTONDO ELEKTRIZITATEA

Argi lanak  
Iluminazioa  
Antenak

lurre, 4 (Mustad)  
943 672 300  
Amaroz, 21.  
943 675 513  
20400 TOLOSA

## Zumardi

SEGURAS  
BILBAO



Aholkularitza  
integrala

Laskurain, 8-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 651 877

## Martin Eceizabarrena

Instalazio  
erreforma  
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa  
Tel.: 943 672 445  
Mobila: 608 774 822

## J. San Sebastian MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



# Reggae, folk eta erromeria doinuak tolosarrek landutako diskoetan

Pello Ramirez eta Xabier Zeberio, batetik, eta Joxe Mendizabalek, bestetik, folk eta erromeri giroa biltzen dituzten disko bana kaleratu berri dituzte. Glaukoma taldeak, berriz, reggae doinuak jasotzen dituen lana argitaratuko du maiatzaren 18an.



posatzen dituen grabaketa" egin dute. Horretarako, akordeoia eta Suediako erdi aroko tekladun biola nyckelharpa uztartu dituzte. Pello Ramirez ordizierra arduratu da akordeoiaz. Xabier Zeberio tolosarra, berriz, nyckelharpaz. Oskorri, Benito Lertxundi eta Alos Quartet moduko taldeetan aritu diren musikariek zenbait melodiaren bertzioak eta konposizio berriak egin dituzte eta,

beraien esanetan, "estilo pertsonalez landutako melodia goxo eta sotilak nahiz folk ukituko erritmoak uztartzen dira bertan". Diskoa grabatzerakoan, Enrike Solinis gitarrojolearen kolaborazioa izan dute. Apirilak 20an, 20:30ean, Tolosako Topic aretoan aurkeztuko dute aipatu lana.

Joxe Mendizabal akordeoi jotzaile ibartarrak, berriz, "Soinujolea naiz" izenburupean kaleratu du diskoa. Mendizabalen hitzetan, "proiektu hau herri eta auzoetako jai eta ospakizunak gironteraz bideratuta dago, eta hori da disko honetan entzun ahal izango duzuen: cumbiak, kalejirak, fandangoak,...". Eskarmentu handiko musikaria da Mendizabal.

bal. Egan, Basajaun, Suan Blai... talde ugari aritu da ibartarra. Halaber, telebistako saio ugari hartu du parte: Egin kontu, Betizu, Sorginen Laratza,... Egun, berriz, erromeria.com egitasmoa jarri du martxan. Bertan, berak konposatutako kantuak entzun eta deskargatzeko aukera jarri du. Halaber, ikusle ezberdinei zuzendutako emanaldiak eskaintzen ditu: betiko erromeria, kantu afaria, ospakizunak,...

Glaukoma taldeak, berriz, bere lehen diskoa kaleratuko du maiatzaren 18an, Bonberenean ekintzak zigupean. Tolosa, Donostia eta Irungo herritarrek osatutako taldeak bi urte inguru daramatza han eta hemen kontzertuak eskainiz. Tolosaldeko musika taldeak ezagutarazteko helburuarekin Bonberenean iaz kaleratutako "Sputnik 11" bilduman bi abesti sartuz hartu zuten parte. "Glaukoma Vol. 1" izenpean eta CD/Lp formatuan kaleratuko den lanean, euskaraz, gaztelaraz eta ingelesez abestutako reggae eta rap doinuak jasoko dituzte. Karlos



Osinagaren gidaritzapean, Bonberenean grabatu, nahastu eta masterizatu du Glaukomak bere lehen lana. Kontzertu ugari dituzte jada aurreikusita. Maiatzaren 18an, esaterako, Bonberenean zuzeneko emanaldia eskainiko dute, diskoa aurkezteko. Halaber, maiatzak 26an Villabonan egingo den Onddorock jaialdian hartuko dute parte.

#### Kontzertu ugari Bonberenean

Esperientzia handiko eta estilo anitzetako musikariak ikusi eta entzun ahal izango dira ondoko asteetan Bonberenean. Hiru nabarmentzearen, apirilak 20, ostiralean, Triz3ps taldeak Soul eta funk doinuak ekarriko ditu Tolosara. Besteak

beste, Parafunk taldean aritutako Jabi Pezek, Alberto Boschek eta Oriol Floresek osatzen dute aipatu taldea eta oso zuzeneko indartsua du.

Maiatzak Sean, berriz, Hondarribiako bi talde gerturatuko dira Tolosara: Beti Mugan eta Lif. 80. hamarkadaren amaiera aldera sortutako rock taldea da Beti Mugan. Lisabok, berriz, iaz kaleratu zuen bere azken diskoa, "Animalia lotsatuen putzua" eta, ordutik, kontzertu ugari eskaini ditu. Musika kritikoez Lisaboren kalitatea behin eta berriz nabarmendu dute.

Azkenik, maiatzaren 12an, Inoren Ero Ni taldeak joko du. Bap!! musika talde ezaguneko hainbat partaideren artean sortu eta bere ibilbide propioa egin duen taldea da Inoren Ero Ni. Lau disko kaleratu dituzte 2004. urtetik hona eta, Tolosan eskainiko duten kontzertuan, besteak beste, iaz kaleratutako "Fregoli" diskoko kantuak joko dituzte. Aurrekoek bezala, oso zuzeneko indartsua du Inoren Ero Ni taldeak.

#### Erredakzioa

Udaberriarekin batera Tolosaldeko musikagintza hasi da loreztatzen. Pello Ramirezek eta Xabier Zeberio, "sonoritate magiko eta erakargarriak pro-



**ZALBIDE**  
Tolosa Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan. Ostirala, larunbata eta igande eguerditan irekita, iluntzetan egunero.

Zalbide baseria - Abaltzisketa  
Tel: 943 652 176

**SANTAMARIA**  
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketak.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantziarako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610  
TOLOSA

**gizarte kutxa**

**HALCON**  
BIDAIARIK

Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113

**errrotatxo okindegia**

Andia kalea, 3      Amaro, 9-A  
Tel.: 943 655 492      Tel.: 943 671 038

# Asier Hilario, Gure harriko orrien irakurketan

Asier Hilario (Tolosa 1977), gurasoekin Hernialden bizi ondoren, gaur egun Iruran bizi den EHUko geologia doktore tolosarra da. Horrenbeste maite dituen Pirinioen sorrera ikertu zuen lau urtez Benasquen, bere tesia osatzeko. Ondoren, beste beka batekin Suitzan aritu zen urtebetez, Europako ikerketa zentro nagusienetakoa den Zuricheko ETHn. Bere *zortzimilakoak* Pirinioak diren modura, bere-berea duen mendia, gurasoen eskutik aurkitu zuen Aralar da.

Felix Aiestaran

Ikerketa lana gustuko duen arren, urtez urteko beka eta proiektu berrien bila aritu behar bidea oso nekeza bihurtu zioten. Zumaiaiko Flysch-en biotopoaren koordinatzaile zientifikoa da eta 2005 urtetik dihardu Flysch-aren biotoporen dibulgaziorako lanean. Beste edozein parke naturalak ez duen berezitasun tematikoa eta proiektio internazionala aitorzen dio Zumaiaiko Flysch-ari. Euskal Herriko beste eskaintza geologikoekin batera, ibilbide osatu modura zabaldu beha-

rra aldarrikatzen du. Bestetik, 2024rako Donostian Nazioarteko Kongresu Geologikoa egiteko hautagaitzaren lanketan aritu da; duela gutxi, Geologia Zientzien Nazioarteko Erakunde (IUGS) Gipuzkoara etorri da lehenengoz hautagaitzaren berri izateko.

Geologiaren dibulgazioa ezinbestekotzat jotzen du eta irakaskuntzan ere geologoaren beharra aitortzen du: gazteak gure iraganaren harrizko orrietara, gelako mugetatik at, bertatik bertara modu erakar-

garrian gerturatu ahal izateko. Bere proiektuen artean, Leidorren aurkeztutako *Flysch hitzen hitza* izeneko dokumentala oso gogoan du. Dokumentala gauzatzeko hiru urtez, Alberto Gorritiberea zine zuzendariarekin eta 25 zientzialariek arituz lanean. Interneten [www.flyschzumaia.com](http://www.flyschzumaia.com) webgunean ikusgai dago.

Zer dela eta ikasi zenuen geologia?

Mendia gustatzen zaidalako izan daiteke. Etxekoekin Arala-

rrera eta lagunekin Pirinioetara joaten nintzen. Mendizaleak paisaiaz gozaten orduak ematen dituen modura, aurrean ditugun mendi horien sorrera azaltzeko balio digu geologiak. Geologiak eguneroko bizitzari buruz ikuspegi zabala erakusten du. Gaur egungo zibilizazioa geologiaren denborarekin alderatzean apaltasuna sortzen digu, baina bestetik, denbora gutxian sekulako ingurugiro triskantza egin dugula ere ikus daiteke.

Gizarte honetan zein da geologiaren zeregina?

Geologia baliabideak bilatzeko erabili izan da: petrolioa, kare-harria, mineralak... Obra publikoetan zubiak edo tunelak nondik nora egin behar diren jakiteko ere balio du. Niri dibulgazio arloa interesatzen zait. Zein planeta konplexuan bizi garen eta aldi berean zein txikiak garen azaldu nahi dut. Ingurugiro arazoak oso ikuspegi egozentrikotik aztertzen dira. Etorkizuna iluna izan daiteke gure espeziearentzako, baina planetak berdin-berdin jarraituko du. Planetak krisi larriagoak pasa izan ditu. Milioika urte bizi izan ziren espezieak desagertu ziren lehendik ere. Gaur egun jendeak geologiarekiko interesa badu. Espainian gehien bisitatutako tokiak ez dira Guggenheim edo El Prado museoak; Ordesa edo Teide moduko inguruak baizik.

Zer da krisi biologikoa?

Krisi klimatikoaz gain guretzat arriskutsuagoa izan daite-

keen krisi biologikoa dago. Bizitzak ia lau mila milioi urte ditu. Bostehun milioi urte arte zelula moduko oso bizitza sinplea izan zen. Garai horretan "Big Bang" ebolutiboa gertatu zen, bizitza konplexua sortu eta espezieak oskolak osatu zituzten. Ondorioz, paleontologoak bizitzaren aztarnak eta gora beherak historian zehar ezagutu dezakete. Ordutik, bost suntsipen nagusi gertatu izan dira, beste txikiagoz tartekatuta. Azkenekoan, dinosauroak desagertu ziren duela 65 milioi urte. Gaur egun, urtean hogeita hamar mila espezie desagertzen dira. Desagerpen tasa normala baino hamar mila aldiz handiagoa da. Desagerpen masibo baten zantzu nabarmena adierazten du datu honek. Batzuek diotenez, seigarren suntsipen masiboaren aurrean gaude. Gizakiak habitata suntsitu eta hesitu egiten duenez, ekosistema puskatu egiten du, bere lurraldea behar duten espezieak desagertu egiten dira.


Zer da (IUGS) Nazioarteko Geologia Erakundea?

Geologia arloan dagoen erakunde nagusia da. Munduan geologia arloan lan egiteko ildoak finkatzen dira bertan, ez ikerketa arloan soilik, hirugarren mundurako ura edo beste beharretarako lanak bideratzen ditu. Orain dela gutxi Donostian izan ziren, guk eta IGMEk Madriletik eskatuta. Oraindik ere nazioarteko geologia kongresu baterako hautagaitza esku artean dugu 2024rako.


Nolako aberastasun geologikoa du Gipuzkoak?

Gipuzkoak aberastasun geologikoa handia du. Geologia aldetik Gipuzkoa Euskal Herriko lurralderik anitzena da. Bertako erregistro guztiak azaltzen dira zaharretatik berrienera. Duela hirurehun milioi urteko erregistro geologikoa zaharrenek Aiako Harriak inguruan azaltzen dira. Granito adibide bakarra da, magma poltsa handi bat lur-azpian hoztu eta kristalizatu izanaren ondorioa. Gezurra badirudi ere, geografia zibilizazioak bezala aldakorra da, eta Euskal Herria ez da salbuespena izan: historian zehar gure ingurua itsaso tropikala, basamortua, oihan tropikala... izan da eta hori guztia inguruko harrietan idatzia dago. Aralarren jurasikoko aztarnak, meatzeak, Euskal Herriko bailara glaziar bakarra (Arritzagakoa, alegia)... daude. Jaizkibel bere egitura ikusgarriekin oso berezia da... Jaizkibel Amerikan balego

Arroil Handia haina ezagutaraziko lukete. Hemen, Zumaiaiko Flysch-an, Aiako Harriak eta Oñatiko Arrikurutz kobazuloan egiten da dibulgazio lana. Eta oso ondo funtzionatzen du. Jendeak geologiarekiko interesa du.







"Gaur egungo zibilizazioa geologiaren denborarekin alderatzean apaltasuna sortzen digu".

**Zumaiako Flysch-ak zenbateko garrantzia du?**

Sekulakoa. Beste eskaintza geologiko guztien amua izan beharko litzateke. Bisitariak erakartzeko erakusleihoa da. Bioto-poaz gain Geoparkea ere bade-nez, mundu mailan oso aintzat hartzen da: zientzialari guztien artean atea irekitzen ditu. Zumaiako Flysch-a top da mundu mailan. Debatik Zumaiara, duela 100 milioi urtetik duela 50 milioi urte arteko historia irakurri dai-teke. Lurraren historiaren liburu handi honetan, orri guztiak ja-rraian agertzen dira zortzi kilo-metrotan. Bertako irakurketak mundu mailako ondorioak ate-ratzeko ere balio du. Dinosau-roen desagerpena aztertzeke loraldirik onenak Zumaiakoak

dira, Karibekoekin batera. Due-la 65 milioi urteko arroketan geruza fin beltza agertzen da eta bertan fosilen %83a desa-gertzen da. Munduan zerbait gertatu zen, geruza hori Euskal Herria estaltzen zuen itsasoaren ondoan metatzen zen momen-tuan. Desagerpenaz gain beste ezaugarri nagusia iridioaren proportzioa da; normala baino ehun aldiz altuagoa. Iridioa lu-rrean topatzea oso arraroa da, meteoritoetan ordea oso arrun-ta izaten da. Yukatan-en meteo-rtoa aurkitzeko frogua nagusia iridioa izan zen.

**Etorkizuna iragarri daiteke?**

Epe geologikoan bai. Etorki-zuna iragarri daiteke, iragana ulertzen dugulako. Gertatuko dena, ziur aski lehendik ere ger-

tatu delako. Baina, epe motzean, gure jokaerak eragin handiagoa du. Epe geologikoan klimak ho-tzera egin beharko luke, baina gizakiok atmosfera kutsatu dugu eta orain ez dakigu oso ondo zer gertatuko den epe motzean.

**Ezagutzen al dugu euskaldunok gure altxor geologikoa?**

Altxor geologikoa ez da eza-gutzen ez hemen eta ez beste inon. Mendizaletasun handia dago eta jendeak badu inte-resa: Txindoki nola sortu zen... Baina, bestalde, desoreka handia dago, geologiaz galde-tzean, eskolan ikasitako harri-tzarrik astunena dela aipatuko baitute. Geologia oso gaizki irakatsi izan da, baina azken bost urtetan Euskal Herrian geologia arloan aurrerapauso handiak egin dira. Komunika-bideetan geologiak agerpen handiagoa du azken urteotan. Erakundeek ere sinisten dute, orain arte ezer gutxi egin den arlo honetan.

**Zer nolako dibulgazio lana egin behar da?**

Geologooi Felix Rodriguez de la Fuente bat falta zaigu. Aur-kari asko dituen arren, biologia estatu osoan ezagutarazi zuen. Komunikabideetan gero eta gehiago agertzen gara eta bide onetik goaz. Ikastetxeetan geo-logia ondo irakastea falta da eta ondo irakasteke mendian aritu beharra dago. Geologia irakas-leen gabezia dago. Geologiaren edukia ezin da funtsik gabe lan-du, helburua ez da ahalik eta tu-rista gehien erakartzea. Geolo-giarekin ezin da etekin azkar bat bilatu. Jende asko etortzea lana ondo egin izanaren ondorioa

izan behar du. Zumaian 40.000 lagun biltzen dira Flysch-a ikus-teko. Arditurri, Pozalagua edo Añanako gatzagetan antzeko gertatzen da... Jende askok ez dakien arren, hori geoturismoa da eta urtean Euskal Herrian mi-laka lagun mugitzen ditu.

**Zer azpimarratuko zenuke Tolosaldean geologikoki?**

Interes geologikoko inbenta-rioa egiten ari garelarik Tolosal-dean interes geologikoko handi-ko tokiak agertzen dira. Uzturre mendia geologian aipatzen den sinklinal zintzilikatua da. Oso bi-txia da: harkaitzak tolestean, sin-klinalak behean, bailaran geldi-tzen dira eta antiklinalak goian, bada, Uzturren sinklinala goian agertzen da. Gurutze ingurua behe kretazikoko harkaitzak dira, duela ehun milioi urtekoak, bertikalean dauden arrokak ju-rasikokoak dira eta Izkun ingu-rua eta beheko bailara triasikoa da. Triasikotik, jurasiko osoa pa-saz, kretaziko hasiera bitartekoa mendi bat igoz ikusi ahal izatea oso gutxitan gertatzen da. Due-la 200 milioitik duela 100 milioi bitartekoa azaltzen da bertan. Triasikokoak harkaitz gorrixkak dira, jurasikokoak bertikalean dauden kare harriak eta kreta-zikokoak ere kare harriak dira, baina geruzak ez daude horren ongi berezita itsaso azpian ze-goen eremu hori koralez josita zegoelako.

**Zein egitasmo dituzu esku ar-tean?**

Hemen eta mundu guztian zehar gure planetaren altxorrek ezagutu eta jakinaraztea. Ho-rretarako audiobisuala da me-diorik egokiena. ☺

Zintzilik



**Txarli Gesteira**  
Blogaria  
txarli/berriketana.info

Opor egun batzuk pasa berri ditugu gutako askok, batera eta bestera ibili gara. Bidai luzeak egiten ditugu maiz, non zer ikusiko. Hala ere, eta urrutira joan beharrik ez da izaten toki paregabeak ezagutzeko. Lan hori erraztu aldera, Argia aldizkariak, Ihesi saila internetera zabaldu du. Honela, aldizkariak urte luzez egin duen moduan, Euskal Herria bertatik bertara ezagutzeko eta gure txokoez gozatzeko aukera ugari biltzen hasi da [www.ihesi.com](http://www.ihesi.com) helbidean.

# Euskal Herrian Ihesi

Euskal Herriko zazpi lu-rraldeak bere baitan hartzen dituen euskarazko turismo -gida webgunea sortu du Ar-giak. Esan bezala, webgunea Argiak sortu du, baino edu-kiak erabiltzaileak igotzen ditu. Nork daki, azken batean, erabiltzaile berak baino ho-beto bere herria nolako den, non dagoen ogitarteko goxo bat jateko toki egoki bat, atse-dena hartzeko txoko atsegin bat... Erabiltzaile berak pro-posatuko ditu tokiak. Beraz, erabiltzaileen parte-hartze hori da gunearen berezitasu-nik adierazgarriena. Izan ere, erabiltzaileek beraiek egiten dituzten proposamenak dira gida hau elikatzen eta abe-rasten joango direnak. Hala, erabiltzaileak bere herriko edo ezagutzen dituen le-kuak gomendatu ditzake, eta gainontzeko erabiltzaileek emandako boto kopuruaren esku egongo da proposamen

## Euskal Herrian ihesi

bakoitza zerrendan gorago edo beheago egotea. (Spam -a edo propaganda ekiditeko modu egokia izan daitekeela iruditzen zait azken hau). Honela, erabiltzaileek or-duan eta toki gehiago pro-posatuko gero eta osatuagoa egongo da Euskal Herriari bu-ruz herritarrek eskura izango duen informazioa. Herri eta tokien informazioa bi modutara aurkituko dugu, lurraldeka, hau da, probintzie-tan sailkatuta edo zonaldeka, momentuz "Hiriburu eta hi-riak", "Kostaldea" eta "Pirinioen magalean" ataletan sailkatu-rik. Toki edo herriak proposatzeko erabiltzaile bezala izena eman behar da. Oso erraza da: izen

abizenak eman, pasahitza as-matu eta e-posta helbide bat nahikoa dira gidan alta ema-teko. Hortik aurrera, zure gus-tuko txokoak gehitu beharko dituzu gainontzeko erabiltzai-leek ezagutu ditzagun. Gidaren edukia Creative Commons Aitortu-Partekatu (cc-by-sa) lizentziapen dago. Beraz, gida hau, kopiatu, ba-natu, lan eratorriak sortu eta jendaurrean heda daiteke, beti ere lanaren egiletza aitortuta. Honela, edonork erabil ditzake gidan agertzen diren testuak. Ondorengo eskubideak ditu erabiltzaileak: gidako testuak norberak nahi duen tokian berrargitara ditzake, testuak erabili eta kopia daitezke, gi-dako testuetan oinarritutako lan eratorriak egin daitezke -erabilpen komertzialak bar-ne-. Beti ere, baldintza hauek bete behar dira: egiletza aitortu behar diozu Euskal Herrian Ihesi webguneari (aitortu-by)





WILT. Panpina puzgarriaren hilketak

# Mikel Laskurain: "Nire euskaran antzezten gusturago, askeago sentitzen naiz"

Datorren apirilaren 27an, ostiralean, 20.30ean, Ados antzerki taldeak "Wilt, Panpina puzgarriaren hilketak" antzezlana ekarriko du Leidorrera. Ikuskizuna Thom Sharpe idazle ingelesaren lanaren egokitzapena da. Lehenengo aldia da Sharperen lan bat antzerkirako prestatzen dela; nazioarte mailan lehenengoz eta euskaraz.

Naiara Roldán de Aránguiz

Irailetik aurrera Adosek gazte-laniazko bertsioa ere taularatu du baina lehentasuna euskarazkoari eman nahi izan dio. Wilt antzezlana eta pertsonaiak Mikel Lakurain aktorearekin hitz egin dugu, bera baita obrako protagonista.

Mikel Laskurainek Wilti bizia emateko, inguruan lau aktore izango ditu, eta lauren artean 20 bat pertsonai osatu beharko dituzte. Isidoro Fernandez, Aitziber Garmendia, Miren Gojenola eta Koldo Losada edo Fernando Ruiz -elkarrizketa egiteko garaian konfirmatzeke, txandakatuz aritzen baitira azkenengo biak- izango dira Leidorreko taula gainean.

Zer ikusiko du ikusleak Wilt antzezlanean?

Komedia bat da. Wilt gizajoa-

ren istorioa. Wilt ez dago batere gustura bere bizitzarekin. Alde batetik, emazte dominante hutsa dauka, berak nahi duena egin behar izaten du; lanean ere ez dago batere gustura, poesia klaseak eskaintzen dizkie txapista, elektrizista ikasleei. Desesperatua dago, izan ere, berak dioen bezala, nahikoa dauka gazte hauei irakurtzen eta idazten erakustearrekin! Wilten aisialdi bakarra txakurra paseoan ateratzea da. Orduan amets egiteko aukera izaten du eta. Momentu horretan emaztea nola hil imajinatzen du.

Istorioren momentu batean emaztearen bitartez jai batera derrigor joatea suertatzen zaio, emaztearen lagun batzuen txalerean. Bertan panpina puzgarri batekin topo egingo du eta endredoa hasiko da: emazteak alde



egingo du, Wiltek panpinarekin emaztearen hilketaren entsegua egingo du, baten batek ikusi egingo du eta emaztea benetan hil izana leporatuko diote, polizia azaldu eta espektakulua poliziaren itaunketaren bitartez

garatuko da. Benetako korapiloa orduan hasiko da.

Wilt pertsonaia erabat antiheroia dela esan dezakegu?

Bai, antiheroia da. Poliziak marreatu egiten ditu, zoratu egiten

ditu... Gezurak asmatzen ditu besteek sinistu ditzaten. Andrea agertzen ez denez, lo egiteko premia handia duenez, gezurak asmatu egiten ditu. Azken finean, gizajo bat da, bizitzan dena gaizki ateratzen zaio: lana, matrimonioa...

Komedia bat da ikusleak taula gainean ikusiko duena, umore eta sarkasmoa barra-barra, baina gizarteari erabateko kritika ere egiten zaio.

Bai. Poliziak tonto moduan uzten ditu, inkompetente hutsak; eskola sistema zalantzan jartzen du; jende handikia, aberats okituak ere kritikatu egiten ditu, lapurrak besterik ez dira eta. Egia esan denak astindu egiten ditu!

Nolako prozesua izan da pertsonaia sartzeari? Izan ere, eszenan erabateko protagonismoa duzu.

Zuzendariari kasu eginez. Ez nuen etxetik gauza handirik prestatu eraman. Testua irakurri eta konfiantza hartu nuen zuzendariarengan. Egunetik egunera lan eginez, lan taldean lan eginez eta probatuz. Ez daukat modu edo sistema zehatzik pertsonaia prestatzeko.

Aurretik liburua ezagutzen al zenuen?

Ez. Ez naiz batere irakurle zalea.

Gainerako 4 aktoreek 20 bat pertsonai antzeztu behar dituzte, eskizofrenia garatzeko aukerarik?

Hasieran bai, orain ez ordea. Nahiko mekanizatua daukate.



Pertsonaia batekin amaitu, arropaz aldatu eta hurrengoan murgiltzen dira. Hasieran zalantzak egoten dira baina horretarako daude entseguak. Lehendabizi dena mekanizatu beharra dago, ondoren pertsonaia bakoitzari bere saltsa eta grazia ateratzeko. Arropa aldaketak eta tankerakoak bigarren maila batera pasatzen dira, inportantzia interpretazioari ematen zaio, pertsonai bakoitzari zukua ateratzeari.

Nolako lan taldea osatzen duzue? Oraingoan berriz ere, gainera, Miren Gojenolarekin, emaztearekin, lan egiteko aukera izan duzu.

Aspaldiko partez, Mirenekin nago bai! Senar-emazte papera eginez gainera! Guraso izan ginenetik, espektakulu berdinean ez egoten ahalegindu gara. Gaur egun, umek badakite makarroiak berotzen eta gu berandu etorrita ere badakite etxean bakarrik egoten... Lehendik ere oso ohituta geunden elkarrekin lan egitera eta gustura aritzen gara. Aitziberrekin Finlandian aritu izan naiz baina gainontzeko aktoreekin lehen aldia izan da. Oso esperientzia polita da, emaldian oso ondo moldatzen gara, umore onean.

Eszena azkar ugari dira taula gainean antzeztu behar dituzuenak. Ikus-entzunezkoa laguntzarik eskaintzen al du?

Bai. Pantaila handi bat -2x3 metro- dugu eszenario erdian. Dekoratu pantailak eta bi banketek osatzen dute. Pantailan proiektatutakoa istorioa ulertzen

laguntzen du. Askotan aktoreak azaltzen gara baina irudiari komiki kutsua eskainiz. Honek istorioa aberasten laguntzen du.

Hizkuntzari dagokionez, euskalki ezberdinak entzungo ditu publikoak. Pertsonaien sinesgarritasunean laguntzen al du?

Baietz uste dut nik. Etxeko euskaran erosoago aritzen gara. Aktore bakoitzak bere testua moldatu duenez, testua bereganatzeko aukera izan du. Ez da testu itxi bat. Testu bat eman eta zure euskarara moldatzeko eskatzen badizute, zure terrenora ekartzeko aprobetxatzen duzu, zure umorea sartzeko. Euskaraz bizi garenok abantaila dugu, testua errazago eta sinesgarriago egiteko. Nire euskaran baldin bada are gusturago, askeago sentitzen naiz.

Zein beste proiektu duzue eskuartean?

Ados Teatroarekin Gabonetarako beste proiektu bat martxan izango dugu baina oraingo ezin dugu ezer aurreratu. Maiatzean Trapu Zaharra antzerki taldearekin, "Ametsetan bizi" estreinatuko dugu, kaleko espektakulu bat da eta momentuan entseguetan zeharo murgildurik gaude. Bestetik, Wiltekin jarraitzeko asmoa ere badugu, udan aretoko ikuskizunak ez dira gehiegi kontratatzen eta udazkenean berriro helduko diogu. Aurretik Tolosakoaz gain, Zumaian, Gernikan, Bilbon... eskainiko dugu. Hiriburuei dagokionez, Gasteiz eta Iruña falta zaizkigu... Proiektuak badaude. ☺


Errotulazioa & irudia  
**Vicente**  
www.rotulosvicente.com  
943 69 02 94  
taller@rotulosvicente.com  
Laskibar bialara 25, 1-04 atna  
20271 Iruia (Gipuzkoa)

**Saldias Miguel**  
CORREDURIA DE SEGUROS  
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA  
N. D.G.S. J.1759  
Bizi-asegurua  
Kotxe-asegurua  
Istripuak  
Gaisotasunak  
Ospitalizazioak  
Subsidioak  
Lan-istripuak  
Enpresa txiki eta ertainak  
Erantzukizun zibila  
Etxe-asegurua  
Denda-asegurua  
Erretiroak  
Inbertsio fondoak  
SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea  
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462  
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
www.saldias-miguel.com

0100100  
00111100  
00111100  
00111100  
**Tolosa Bit**  
Informatika Zerbitzua  
Ondaragailuak eta konputatzaileak  
Erresuma eta partikularentzako  
Mantentzeak  
Oria kalea, 14-behea  
Tolosa - Tel.: 943 676 156  
Faxa: 943 016 857  
tolosabit@facilnet.net  
www.tolosabit.es

irakurri  
entzun  
Ikusi

Emakume bat  
Annie Ernaux  
Itzultzailea: Itziar de Blas



Gorputza eta memoria apurka -apurka hustu dizkion gaixotasun luze baten ostean, Annie Ernauxen ama zahar-etxe batean hil da. Herio hurreanean, idazleak amaren bizitzaren ispilu hautsiaren puskak baten eta osatzen saiatuko da, eta ariketa literario horrek amarekiko anfibalentzia sentimenduak sortuko dizkio: maitasuna, gorrotoa, erukia, tristezia, ulertu ezina... Hala, bada, alabaren kontakizun gordinean, bi emakumeen historia pertsonalek talka egiten dute eta, aldi berean, gainjartzen dira.

Ipar Haizea  
Kepa Junkera eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoa



Lan berri honetan Kepa Junkeraren diskografia zabalaren 9 gai aurkitzen dira, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren musikarekin apainduta. Bi mundu paralelo horiek, klasikoak eta tradizionalak, elkarrekin topo egin eta estilo desberdinak partekatuko dituzte musika oinarritzat hartuta.



Izena duena  
Joseba Ueberuaga Natxiondo  
Basajaunek gau osoa eman du ardiak zaintzen. Goizaldean, abiatzeko orduan, otsoak agertu dira! Txistua jo du bordako artzainak ohartarazteko, baina ez dirudi konturatu direnik.

# hitzordduak

Apirilaren 20tik maiatzaren 4ra bitarteko

## Kontzertua

**Trizeps.** Apirilak 20, ostirala. Tolosa, Bonberenea. 22.30. 8 euro. Talde donostiarraren lan berriaren aurkezpena.

**Anai arrebak eta SHH.** Apirilak 21, larunbata. Tolosa, Bonberenea. 22.30. 8 euro. Talde biek euren lan berriak aurkeztuko dituzte.

**Musika Kaperaren omenaldia azken urteetako kapera maisuei.** Apirilak 22, igandea. Tolosa, Andre Maria parroikia. 12.00. Meza nagusian zehar, Tolosako Andre Maria Parrokiako Musika Kaperak, azken urteetan erakunde honek izan dituen kapera maisuei (Luis Mari G. Artetxe, Miguel Ceberio, Inma Eguizabal eta Ander Letamendia) omenaldia.

**Glaukoma eta Stepi Selekta.** Apirilak 27, ostirala. Tolosa, Bonberenea. 22.30. 8 euro. Glaukomak bere lan lana aurkeztuko du eta Stepi Selektahek hip-hop erritmoak eskainiko ditu.

**Talco eta La Maquina.** Apirilak 28, larunbata. Tolosa, Bonberenea. 22.30. 8 euro. Ska.

**Xabi Zeberio eta Pello Ramirez.** Apirilak 20, ostirala. Tolosa, Topic. Sarrera doan Kutxak lagunduta.

## Irteera

**Xabierreko Gaztelura irteera.** Apirilak 21, larunbata. Urkizua

tik, Alurtxiki Auzo Elkartek antolatuta.

**Untzaga-Orduña Mendatea.** Maiatzak 1, asteartea. Gazte-txontzako mendi irteera. Alpinoko Uzturrek antolatuta.

## Erakusketa

**"Izeia" ipuinari buruzko erakusketa.** Apirilaren 23a bitartean. Tolosako Errota liburutegia. Andersenen Haur liburuaren egunaren harira.

## Liburuaren nazioarteko eguna

**Apirilak 23, astelehena. Tolosa, Aranburu Jauregia, Liburutegia.** BookCrossing gune bat sortuko da herriko jendeak liburuak "aska" edo "harrapa" ditzan.

**Apirilak 30, astelehena. Tolosa, Aranburu Jauregia, Liburutegia.** Zozketa Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira. Apirilean zehar liburuak maileguan hartutako pertsonen artean liburu sortak zozketatuko dira.

## Mintegia

**Apirilak 25, asteazkena. Familia-konstelazioa.** Ibarra, Bat Izan zentroa, 19.30. Mintegi bat 40 euro, biak 60 euro. Ize-

na emateko: 659 082 895 telefono zenbakia edo perunea@gmail.com helbide elektronikoa.

## Motorra

**Apirilak 29, igandea. Langostino Moto Kultur Elkartean bira.** Ibarako San Bartolome plazatik. 09.00.

## Txotxongiloak

**Liburuzaina estu eta larri.** Apirilak 21, larunbata. 18.30. Tolosa, Topic.

## Ipuin txokoa

**Ipuin Txokoa, gurasoak ere ipuin kontari!** Apirilak 27, ostirala. Tolosa, Errota Haur Liburutegia. 18.00. 3-6 urte bitarteko haurrentzat eta euren gurasoentzat. Kontalaria: Miriam Mendoza.

## Tolosa Kantari

**Apirilak 28, larunbata.** Tolosa, Agirre doktoarearen plazatik (Tontokaletik), 12.00.

## Gipuzkoa Encounter

**Apirilak 28-30. Tolosa, Usabal kiroldegia.** Sarreraren prezioa



## Langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Lanbide eta Hezkuntza Sailak diruz lagunduak

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Ekintzailetasun tailerrak	2012.04.23	8
Aurkezpenetarako aplikazio informatikoak:	2012.05.02	30
Informazio grafikak (Powerpoint)		
Kalitate erremintak	2012.05.07	24
Lotura eragiketak (TIG soldaketa)	2012.05.21	40

Maiatzaren 3an, ostegunean. TOLOSALDEA GLHBIn. Arratsaldeko 17.00etatik aurrera. ATE IREKIEN eguna. Lanbide heziketa ezagutzeko aukera aparta. Etor zaitez!

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu? Jo ezazu Tolosaldea GLHBiko bulegora. Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa. Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com  
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com  
www.ikastn.com



## Goardiako farmaziak

<b>Ostirala, 20</b> Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa	<b>Asteazkena, 25</b> Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra	<b>Astelehena, 30</b> Morant, R (Zaballarreta, 1) Tolosa
<b>Larunbata, 21</b> Etxebeste Jesus M <sup>a</sup> (Gernikako arbola, 3) Tolosa	<b>Osteguna, 26</b> Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	<b>Asteartea, 1</b> Etxebeste Jesus M <sup>a</sup> (Gernikako arbola, 3) Tolosa
<b>Igandea, 22</b> Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra	<b>Ostirala, 27</b> Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa	<b>Asteazkena, 2</b> Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa
<b>Astelehena, 23</b> Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa	<b>Larunbata, 28</b> Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa	<b>Osteguna, 3</b> Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa
<b>Asteartea, 24</b> Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa	<b>Igandea, 29</b> Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra	<b>Ostirala, 4</b> Morant, R (Zaballarreta, 1) Tolosa

## Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdia)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdia, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	943 672 411	943 673 022
Ikaztegieta	Ertzantza	943 675 320
Medikua	Tolosa Gasa	
Irura	Lizartza	
Osasun zentroa	Medikua	943 682 077
Tolosa	Orendain	
Anbulatorioa, larriald.	Medikua	943 655 595
San Esteban, hitzordua	Orexa	
	Medikua	943 682 228



**Hiru biren prezioan.** Hirukideko batxilergoko 2. mailako zazpi ikasle. Apirilak 20, ostirala. Tolosa, Leidor. 18.00.Sarrera doan.

## jarri zure publizitatea Galtzaundi aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6  
20400 Tolosa  
publizitatea@galtzaundi.com  
943 655 004  
www.galtzaundi.com



## SANTA LUZIA GARAJEA

Grua zerbitzua  
24 orduetan

943 653 491  
943 653 874  
943 653 985  
943 806 020  
Santa Luzia, 1-TOLOSA

## SANZ arraindegia

Tel.: 686 98 21 74  
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,  
7 behea  
20400 Tolosa

## Muxutruk

### Lana

• Ingeleseko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protesiko tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

• Klase partikularrak Tolosan. L.H. eta D.B.H. Gai guztiak. 645 710 789 (Ana). Banaka edo binaka. Esperientzia

• Emakumea, etxeko lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko prest. 943 119839

### Etxebizitza

• Pisua salgai Errementari kalean, 42 m2 eta erreforma egiteko. 620 129 295

• Ikaztegiatan 100 m2-ko 5. pisua salgai. 3 logela, sukaldia, egongela, komuna eta 2 trastero. Balkoi handi eguzkitsua. 637 914126

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 logela, sukaldia, sala, komuna eta trasteroa. Dena kanpokalde, hiru balkoi, eguzkitsua eta bista onekin. 240.405 Euro- Premiazkoa da saltzea!! Tlf: 686969112

• Ibarren, ikasleentzako gela bat alokatzen da. 943 119839

### Salgai

• Akazia hesolak saltzen dira, barrutiak ixteko. 646 52 47 96 (Peio)

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Ariz.



### aries

Martxoak 21-Apirilak 21  
Lanean zenbait kontu aldatuz gero, egunerokotasunean etekin handiagoa eskuratzeko aukera izango duzu. Eginbeharrekoak ondo antolatu dituzu. Etxebizitza apaintzea ez da dekorazio hutsa izango, ondo sentitzeko aukera ere emango dizu.



### taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21  
Zure buruarekiko beldur eta kontraesanei aurre egin beharko diezu, aldaketa garaian murgildurik zaude eta aitzinean gertatutakoa gainera, gogoan duzu.



### gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21  
Maitasuna inguruan duzu. Jolas bat dela pentsatuko duzu hasieran baina konfiantza edukiz gero harreman sakona bilakatzeko aukera aparta izango da. Zenbait aldaketa egingo dituzu gainontzeoak poztu asmoz.



### cancer

Ekainak 22-Uztailak 22  
Helburu oso zehatzak buruan dituzula lanean jarraituko duzu, ongizate maila altuagoa eskuratzeko da buruan duzuna. Ikasketa maila aldetik ez duzu inolako arazorik izango. Erabiltzen ez duzun guztia bota beharko zenuke.



### leo

Uztailak 23-Abuztuak 22  
Espero ez duzun bisita egingo dizu zure familiak. Ez ezazu gustuko ez duzuna gehiegitan aipatu. Zenbaitetan diplomatikoa izatea beharrezkoa da. Okerrak zuzentzea egokiena izaten da, baita barkamena eskatzea ere.



### virgo

Abuztuak 23-Irailak 22  
Tentuz ibili! Zure kontuak nori kontatzen dizkiozun argi izan! Momentuaz goza ezazu. Maitasunerako ahalmenak ez du mugarik izango. Bestetik ere, meditatze eta zure buruarekin egoteko tartea har ezazu.



### libra

Irailak 23-Urriak 22  
Zure arazoak iraganeko kontu bilakatu dira. Zorte txarra alboratu eta arrakastaren bidean murgilduko zara. Behar duzun oreak iritsiko zaizu. Komunikazioa medio erlazio zail hori erraztu egingo da.



### scorpius

Urriak 23-Azaroak 22  
Egoera aurrekoa baino hobea izaten ahalegintzen zara. Besteekiko errespetu handiagoa erakusten duzu. Interesa erakutsiz gero irabazteko aukera izango duzu eta.



### sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21  
Zure osasunak arreta gehiago eskatzen dizu. Gainontzeoak laguntzen horrenbesteko denbora eskaini eta gero zutaz ahaztu egin zara! Mediku batekin hitzordua hartzea ideia ona izan daiteke.



### capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20  
Era osasungarriagoan elikatu beharko zinateke. Arazoak, konpromisoak, zure menpekoak alde batera utzi eta zure buruarengan zentratu behar zara. Zure burua mimatu eta maitatu ezazu, momentu honetan beharrezkoa duzu eta.



### aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20  
Ohituta zaude besteek zure lana egitera, baina aldaketa garaia hemen da. Ohitura txarrak alboratu eta zure buruarekiko arduratu behar duzu. Garai berria egokitze inardarra eta borondatea behar duzu.



### piscis

Otsailak 21-Martxoak 20  
Espero ez duzun dirua jasoko duzu. Dirua jaso aurreko egoera gogoan hartu eta behar bezala inbertitu beharko zenuke. Negozio berri bat martxan jartzeko aukera. Pertsona perfektionistak dituzu inguruan, eraginkorra izatea baino ez dagokizu.

# Horoskopoa

Apirilaren 20tik maiatzaren 4ra arteko aurreikuspena



**Zatoz giroaz gozatzera!**

Tolosa, informatikaren hiriburua  
Apirilak 28, 29 eta 30  
Usabal Kiroledegia












Komikia: Joseba Antxustegiartxe

# INFORMATIKO FUTBOLARI INJINERU ARRAUNLARI DANTZARI

**Ate irekiak:**  
maiazaren 3an eta 8an  
17:30etik 19:30era

Tolosan  
Batxilergoko ibilbide guztiak  
Zikloetara bideratutako batxilergoa  
Eleaniztasuna  
Elkartrukeak  
Jarraipen pertsonalizatua



San Blas auzoa 27 - 943 67 03 11 - hirukide@hirukide.org - www.hirukide.org/bat



# Batxilergoa ikasi nahi duzu?

Leizaran Institutuan aukera baduzu.  
Tolosatik hamar kilometrora

Gaztelaniaz zein euskaraz eskaintza zabala:

DBH

Batxilergo Zientifikoa

Humanistikoa

Teknologikoa

Gizarte Integrazioko Goi Mailako Hezkuntza

Zikloa

Gure eskaintza:

-Ondo komunikatuta dagoen ikastetxea

-Gela bereziak

-Liburutegiak

-Laborategia

-Orientazio zerbitzua

-Europako programak: Erasmus programak, Batxilergo ikasle trukea, ikasketa bidaiak

-...



**LEIZARAN**  
INSTITUTUA

Informazioa: [www.leizaran.net](http://www.leizaran.net)

Telefona: 943 300 078

Emaila: [012740aa@hezkuntza.net](mailto:012740aa@hezkuntza.net)  
[zikloa@euskalerrria.org](mailto:zikloa@euskalerrria.org)